





«Lettre de Francha Barrere à Pierre Hayete», Entrepôt de données ANPERSANA, https://anpersana.iker.univ-pau.fr/items/show/131

Le Dauphin ontziko gutunak ikertzea, ezinbestekoa XVIII. mendeko euskara eta euskal gizartea ezagutzeko

Xabier Lamikiz ikertzaileak euskaraz idatzitako 47 gutun aurkitu zituen Londresko The National Archives-en, 2003an. 1757an Lapurdiko herritarrek Kanadako Louisbourge herrian bizi ziren senideei idatzitako gutunak dira, *Le Dauphin* ontziak zeramatzanak. Dokumentu historiko baliotsuak dira garai hartako Lapurdiko euskara eta gizartea ezagutzeko.

1757ko apirilaren 9an, Britainia Handiko hiru gerra-ontzik *Le Dauphin* itsasontzi frantsesa harrapatu zuten. Gerra betean, Baionatik atera eta Atlantikoa zeharkatzen ari zen, Kanadarako bidean. Itsasontzia ez ezik, barnean zeraman guztia bahitu zuten britainiarrek, dokumentazioa barne. Dokumentuon artean euskaraz idatzitako 50 eskutitz zeuden, Lapurdiko 48 bizilagunek Kanadako Louisbourg herrian zeuden 45 pertsonari idatziak.

«1757an euskaraz idatzitako gutunak dokumentu historiko baliotsuak dira, garai hartako euskara jasoa zein soilaren ezaugarriak ezagutzeko»

Kortsario-ontzia izanik ere, merkataritza-lanak egiten ari zen bidaia hartan *Le Dauphin*. Donibane Lohizune, Azkaine, Urruña, Ziburu, Senpere eta inguruko beste herri batzuetako marinelak ziren gehienak. Gutunak Lapurdiko 35 emakumek eta 12 gizonek idatzi zituzten, eta hartzaileak Euskal Herritik Louisbourgera joandako gizonezkoak ziren, batez ere. Semeari, senarrari, anaiari zein adiskideei idatzitako gutunak dira gehienak. Besteak beste, herriko albisteak emateko, heriotzak jakinarazteko, gerraren berri emateko, zerbait debekatzeko edo baimena emateko idazten zieten. Baina haserrea ere adierazten zuten askok, eta kexu ziren laguntza ekonomikorik ez bidaltzeaz, «beste aldean» amodioak izateaz eta gutunek erantzunik ez jasotzeaz.

Informazio baliotsua eskura

Ikertzaileen ustez, garai hartako euskara aztertzeko baliabide baliotsua da Londresko *The National Archives-en* aurkitutako dokumentazioa: euskararen ortografia, lexikoa, morfosintaxia, estiloa eta bestelako ezaugarriak aztertzeko aukera ematen du. Bestetik, garai hartako literaturan erabiltzen zen euskara jasoaren eta herritar soilek idazten zutenaren artean zenbateko aldea zegoen ikus daiteke. Nolabait, garai hartan zer nolako alfabetizazio-maila eta eskolaratzea zegoen ondorioztatu daiteke. Beraz, XVIII. mendeko Lapurdiko gizartea nolakoa zen jakiteko ere baliagarria da.

Londresko artxiboan oraindik aztertu gabe dagoen dokumentazioa begiratzea interesgarri jo dute ikertzaileek, informazio osagarria lor daitekeelakoan. Esaterako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarrek ez bezala, hegoaldeko probintzietako euskal herritarrek gaztelaniaz idazten zituzten gutunak, beren artean euskaraz mintzo ziren arren. Londresko dokumentazioa aztertzeak horri buruzko datu gehiago argitu ditzakeela uste dute ikertzaileek. Izan ere, 1652 eta 1815 bitartean konfiskatutako 160.000 gutun daude gordeta, eta, Europako hainbat hizkuntzatan daudenez idatziak dokumentuak, aberasgarria izan daiteke beste hizkuntzetako eta beste eremuetako idatziekin konparatzea.

InpAkta 00 (2023) 158-168

https://doi.org/10.1387/InpAkta.25019

Le Dauphin ontziaren euskarazko gutuneriaz (Baiona, 1757)

Xarles Videgain[1]

IKER UMR 5478 CNRS, UPPA

Londresen, TNA (*The National Archives*)-ko egoitzan, gaur arte atxikiak izan dira 1652tik 1815 arte eta 1854tik 1856 arte Angelesek presa gisa hartu zituzten ontzietako dokumentu aberatsak. Hain zuzen, arte horietan, Inglaterrako ontzidiak 36 000 barku harrapatu zituen. Bornuan zeuden 160 000 gutunak kontserbatuak izan dira, ikerlarien bazka. Europako hizkuntz hanitzetan datoz dokumentuak, eta parte bat euskaraz ere.

Xabier Lamikizi zor diogu altxor horren berri izatea. Serendipitateak deus guti izan zuen egitekorik haren lanean. Alabaina bere tesia prestatzen ari zelarik, dokumentazioari ximenki so eginez, iduriz besteak bezalako kaja bat ideki zuelarik, haren barneko gutunak eskuztatuz ohartu zen *Le Dauphin de Louisbourg* deitu ontzian zeuden gutunak Lapurdiko jendeek igorritakoak bazeudela Euskaraz idatziak ziren 49 gutun berezi zituen (gero beste bi agertuko ziren). Gutunak joan behar ziren ontsalaz L'Îsle Royaleko Louisbourg hirira, han bizi ziren Lapurtarrengana. Arraintzatik bizi ziren gehien bat, nahiz parte bat ofiziale, sehi ala mutil zen. X. Lamikiz berehala ohartu zen gutun horien balioaz eta Iker gaztigatu zuen. Ondotik ikerkideok, beste ikerle batzuek eta TNAko *Prize Letters* saileko arduradun den R. Cock jaunak euskarazko gutun eta dokumentu gehiago deskubritu dugu nahiz ez ditugun hemen aipatuko. X. Lamikizen tesiaren beraren ondotik ondoko lanak agertu ziren : Lamikiz X., Padilla-Moyano M. & Videgain Ch. 2015; Carette 2019; Lafuente A. 2021; Talec & Videgain (argitaratzekoa). CORBAN deitu proiektuan, Ph. Chareyre eta C. Mounole erakasleen zuzendaritzapean, tesia egiten ari da A. Lafuente (UPPA).

[1] *Le Dauphin* deitu proiektua CNRSko IKER-UMR-5478 laboratorioan eramana izan da « Bordeleko Maison des Sciences de l'Homme en Aquitaine » deitu egiturak sustengatu gaituelarik. Aldez edo moldez proiektua lagundu dutenei milesker : X. Lamikiz; Ur Apalategi; A. Arkotxa-Scarcia ; P. Baudry ; A. Bevan ; C. Carette ; M. C. Castérot ; Ph. Chareyre ; R. Cock ; G. Denis ; U. Etxebarria ; R. Etxepare ; A. Fuentes Zamalloa ; A. Lafuente ; M Lavergne ; C. Mounole ; I. Duguine ; M. Padilla ; J. Peytavi ; J. P. Talec ; A. Viaut.

* **Corresponding author / Harremanetan jartzeko:** Xarles Videgain. IKER UMR 5478 CNRS, UPPA. e-mail: charles.videgain@univ-pau.fr.
Contributed by Urtzi Etxeberria **editoreak egindako ekarpena**.
How to cite / Nola aipatu: Videgain, Xarles. «*Le Dauphin* ontziaren euskarazko gutuneriaz (Baiona, 1757)», *InpAkta* 00 (2023) 160-168 (https://doi.org/10.1387/InpAkta.25019)

Published by UPV/EHU Press under the terms of the Creative Commons Attribution License http://creativecommons.org/licenses/by/4.0/, which permits unrestricted use, provided the original author and source are credited

Historikoki, hastapeneko gertakaria hauxe izan zen: Baionatik 1757ko apirileko 4an atera zen *Le Dauphin de Louisbourg* deitu ontzia. 80 toneladako ontzia zen. Arrutagai zuen Canadako l'Île Royale, gaur *Cape Breton Island* izena daukan ugartea. Baionatik atera eta egun gutiren barne, apirileko 9an, ontzia harrapatu zuten *Somerset*, *Devonshire* eta *Rochester* deitu ontzi ingelesek (Cock, 2023). Porstmouthen ontziko arduradunen itaunketa apirileko 23an hasi zen : artxiboetan gelditu diren auziaren dokumentuak laster argitaratuko ditugu.

Bornuan 6 «*pieza*» (kanoiak) bazeuzkan ontziak zer gerta ere bere buruaren defenditzeko, edo parada izan balu bera baino ahulagoko ontzi baten presa egiteko. Beti ere, arma horiek ez ziren asko ezen bere kargamentuan merkantziak ere Louisbourgera eraman behar zituen *Le Dauphin*-ek: zapetak, aguardientea, naipe-jokoak, pakotillak eta beste. Horrengatik «Gerlako ta merkantzietako komisioa» firmatu zion 1757ko martxoko 29an Jean-Marie de Bourbon, Penthièvreko duke eta Frantziako almiranteak. Baimena hori ezinbestekoa zitzaion ontziari, Zazpi Urtetako Gerla hasiberria zelako.

Baiona 1757an zertan zen J. Pontetek argiki erakusten du. Portuan kortsuak eta itsasoko jardunaldiek zuten garrantzia azpimarratzen du. Ahatik, *Le Dauphin* ontzia ez zela kortsario bat zehazten du J. Pontetek. Bere 1690-ko hiztegian, Furetièrek «pirate» eta «corsaire» elkarretarik argiki berezten zituen. Pirata batek itsasoan gaindi jotzen zuen (du) Erregeren edo Estatuaren baimenik gabe; kortsarioa aldiz harrapakinen ondotik itsasoan bazebilen baina Erregek baimenduta eta Erregeri bere mozkinetik parte bat emanez. Egia da ez zuela besterik egiten, hots «full time» ari zen, ez zuen ez komertziorik ez garraiorik egiten. *Le Dauphin* aldiz ez zen egiazko kortsario bat bere karga baitzuen Canadan saltzekoa eta lehenik hara eramatekoa. Kanoiak balin bazituen ere, piezak ez ziren nahiko azkar kortsario huts gisa ibil zedin. J. Pontetek ohartarazi bezala, kortsua jardunaldi oso arautua zen eta Estaduak egin ez zezakeena kortsarioak hartzen zuen bere gain. Bestela erranez, kortsarioek osatzen zuten Estatuaren indarra, honek ordukotz ez baitzuen indarraren eta bortizkeriaren monopolioa segurtatzen ahal. Itsasoan presa egiteko eskubideaz luzaz mintza gintezke hemen, Hobbes (*Léviathan*), Grotius (*Mare Liberum, De Jure Belli ac Pacis*), edo goizago Francisco Vitoria bera (*De potestate civili, De Jure belli Hispanorum in barbaros*) aipatuz, herri katolikoek eta protestanteek izan zituzten gatazka guziekin.

Beti ere, Zazpi Urtetako Gerla denboran, Baiona zen Frantziako erresuman presa gehien egiten zuen portua: Dunkerquek eta Saint-Malok baino haboro. Jardunaldi eta ekonomikoa eta belikoa zen: zonbat diru ekartzen zuen zehatz kalkulatu du J. Pontetek: 15 milioi libera eman zuten presa guziek, horrek egin baitzuen 6 milioitako mozkina, Erregeren, burgesen (armadore), kapitainen eta mariñelen artean barreatu zena. Baina kortsuak bazuen itzalik: heriotzarena. Kortsuan eta gerlan hildakoen kopuru handia gertatu zen eta adibidez 485 lapurtar hil ziren Inglaterrako presondegi gogorretan. Poydenot, Baionako burgesak erraten zuen bezala, abantail deitoragarri eta zorigaiztokoa izaten zen kortsoa.

Le Dauphin ontziaz den bezenbatean, Jean Lanne zen armadore eta Lermet kapitain. Lannek Lermeti egin martxa-aginduan hauxe zehazten zuen : Laborde jabeak jakinarazi zuen nahiaren arabera, eta gerlarako armatzeko eman zituen aginduen arabera, helburua bazuten presa bat edo beste egitea, bidenabar. Ontzi etsai bat edireiten balin bazuten, kontuan hartu beharko zuten ingeles nazioarekin baizik ez zeudela gerlan, eta beraz nazio horretako ontziak baizik ez zituztela hartu beharko. Gogoan bazuten beraz harrapakina egitea, ahalaz.

Aipatzen den Jean Laborde, ontziaren jabea, goimailako pertsonaia zen. Bidarten sortua 1710an, salerosle handi, altxorzain, Erregearen prokuradore Louisbourgen. Berantago preso egonen zen Bordeleko Hâ gotorlekuan, dirua desbideratu zuelako akusaziopean; Eysines herrian hil zen 1781an. Aipatu dugun Martin Lermet kapitaina Ziburun sortua zen 1731an eta beraz gaztea 1757an. Aita ere kapitain izan zen Ternuan eta kortsario. Ordezko kapitaina Dominique Leblanc ez zen euskalduna, 1731an Louisbourgen sortua. Lotinanta Pierre Derratsou zen, 1732an sortua maniñel frangotako familian. Baionak orduan 2500/3000 mariñel en-

pleatzen zituen eta Donibane Lohizunek 800 bat. Hainbeste mariñel biltzea ez zen erraz: Baionako burgesek beren gizonak igortzen zituzten Hegoaldera bereziki mariñel berriak biltzeko. Baina *Le Dauphin*-en kasuan, eskifaia-zerrendak salatzen duenaren arabera, ontzian joan ziren mariñel gehienak bertakoak ziren, Lapurdikoak, eta haien patronimoak gaur ere erabiliak dira, hala nola Bizente Lisssaratsou, Donibane Lohizunekoa, Samson Hiriart, Azkaingoa, Bertrand Guichendeguy, Senperekoa. Ba zegoen ondoko herrialdetatik etortzen zenik, adibidez Ortzaizeko Jean Detchebere.

Le Dauphin ontziaren abiaburua Baiona izanik, goazen ikus zertan zen ontziak zeukan helburua, hots Louisbourg herria. 1713ko Utrechteko itunaren ondotik Frantzia behartua izan zen kolonia batzuen Ingelesei abondonatzera, hala nola Akadia eta Ternua. Baina 1757an Louisbourg oraino Atlantikako munduari idekitako leihoa zen frantsesentzat. Louisbourgko garrantzia ongi deskribatzen du X. Lamikiz (Lamikiz 2015). Arraintzan, bakalau gatzatuaren exportazian eta Europatik etorraraziko ekoizpenetan oinarritzen zen bertako ekonomia. Jendeen aldetik, gotorlekuak behar zituen soldadu asko gerizatu; arrantzaleen artean badakigu Euskaldunak ez zirela guti : 1752 ko errolda baten arabera 199 arrantzale bazeuden Îsle Royale delakoan, eta erdia osatzen zuten Euskaldunek; Saint-Malo aldetik jinak gutiago ziren %37 baitziren. Ofizialeen eta salerosleen artean %15 bat euskaldunak ziren.

X. Lamikizek hatzeman euskarazko gutuneria inguru horretan kontuan hartu behar da. Kontinente batetik ugarte batetara joatekoa zen gutuneria, ingeles ontzi armaturik ez balin bazen izan biderdian. Gutunak ez ziren heldu eta Londresen gorderik daude 221 dokumentu Le Dauphin ontzian zeudenak. Anpersana deitu Ikerreko webgunean kontsultagarri izanen dira osoki hementik laster. Erranikako 52 euskarazko gutunez gain, 108 gutun pribatu badaude, frantsesez eginak, eta 33 dokumentu administratibo: haietan, eskifai-errolda, Penthièvre almiranteak eman baimena etabar. Ondotik nahas-mahas beste dokumentu batzuk eta azkenik, auziari buruzko 9 pieza bildu dira, ingelesez idatziak.

19 mendeko euskarazko ekoizpen idatzia ezagutzen duena ohartzen da beste nonbait xume iduri lukeen 52 gutunetako korpusa ekarpen handia dela. «Seismo» eta «tsunami» hitzak erabili ditu Céline Mounolek (Mounole 2023) ekarpen honen pizua haztatzeko, zeren eta txiki eta labur izanik ere, korpus honek ez baitu parerik euskal munduan. Gainera aro zehatz baten hizkuntza-egoera bati buruzko informazioa ematen du (1757ko martxokoa). Garatzen duen lan linguistiko interesgarri batean, C. Mounolek erakutsiko du zein distantzia, zein tramu den gutun horietako hizkuntzaren eta orduko literaturako hizkuntzaren artean. Euskarazko literaturaren leku eta momentu indartsuak eta ahulak luzaz aipatu gabe, orroit gaitezen hastapeneko literatura orozbat Iparraldean gertatu zela, eta Lapurdin gehienbat, Etxepare kendurik. Hegoaldean Larramendi aipatzen da euskarazko ekoizpenaren mugarri gisa, 1729 gramatikarekin eta 1749ko hiztegiarekin. Hain zuzen ber denboran, *Le Dauphin* ontziaren murrizten hasten da Lapurdiko ekoizpena. Ahuldura horren azaltzeko Lafittek bereziki Utrechteto itunaren ondorioak aipatu zituen, honek krisi ekonomikoa ekarri zuelakoan. B. Oiharzabalek erakutsi du ez dela hori oinarrizko arrazoia eta diglozia kontuan hartu behar dela: euskarak, gaztelerak, frantsesak, latinak, okzitanerak ez zuten pisu bera gizarteko esfera desberdinetant. 17. mendean Materrek, Etxeberrik, Axularrek euskaraz idazten balinbazuten, helburu garbia bazeukaten: bazegoen orduan euskara baizik ez zekien irakurlego bat eta hari hazkurria eman behar zitzaion euskaraz. Behar hori bete zuten. Irakurlego hori nolakoa zen, zein jendek osatzen zuen ez dakigu zehatz. Baina dudarik gabe jadanik beste irakurlegoa bazegoen Chartier-ek «arropako jendea» deitzen duena ; goimailako apezak, nobleak, militarrak, lumazko ofizierak biltzen zituzkeena. Aldiz, euskaldun hutsen irakurlegoan sartzen bide ziren laborariak, ofizialeak, salerosleak, mariñelak, burgesen parte handi bat. *Le Dauphine*ko gutunerian ikusten da gutun-igorleak ez zirela baitezpada pobreak edo eta gizarteko mail apalenetakoak.

Gutunak nuntik nork igorri eta nork hartu behar zituen badakigu. 52 gutunetan, 11 Saratik ateratzen dira, 8 Getariatik, 8 Senperetik, 6 Donibane Lohi-

zunetik. Emaile txikiagoak dira Ziburu (5), Azkaine (5), Hendaia (3), Ahetze (2), Urruña (2), Bidarte (2), Baiona gutun bakar batekin (nahiz ez den Baiones batek egina). Ohart, eta ez da ustegabean gertatzen, herri horiek guziek osatzen dituztela orduko Lapurdiko Biltzarrak izendatu zituen itsasaldeko herrien zerrenda eta eremua.

Igorleen sexua kontuan hartuz, emazte igorle gehiago bada gizon igorle baino: 35 emazte eta 12 gizon. Aldiz, gutunen hartzaileetan, gizon gehiago badago emazte baino: 44 gizon eta 4 emazte. Kontsideratzio orokorrik egin gabe, lagin horrek baldintza bereziak jasaiten dituela azpimarratu behar da. Euskal Herritik joan jendeak gizonak dira gehienik, arrantzale edo mariñel edo ofiziale. De Lancre de Rostéguyren hitzak hartuz, itsasoa da «biderik gabeko bidea». Hauxe gehitzen diogu: itsasoa bidea izateaz gain, irabazbidea da lur-leihorrak ez duelarik nahiko emaiten. Bide eta irabazbide horietan, gizonak gehiago ziren ziren emazteak baino. Aldiz, Euskal Herrian egondakoak (gutunetako) emazte dira gehienik. Beraz, ondorioz, goiko zenbakietan gutun-igorleetako emazteen kopuru handia ez daiteke extrapolatu emazteen alfabetizazio-tasa handia zela argudiatuz. Ez dela hala ongi erakutsi du X. Elosegik. Berak ematen duen adibide baten arabera, Saran, 1758an, ikertu dituen 48 bataio-agirietan, 15 gozaita (aitatxi) agertzen dira firmatzen dakitenak eta aldiz goxama bakar batek firmatu du. Ezkontza-agirietan, 8 esposjaun badaude firmatzeko gai direnak eta emaztegaietan bihirik ere. Donibane-Lohizunen, kostaldean, alfabetizazioa ez da hain apala. 44 ezkontza-agirietan, 26 gizon badaude firmatzen dutenak eta 10 emazte. Beraz, emazteen alfabetizazio-tasa handiago da euskaldun gutiago den herrian, Donibanen, baina herri honetan ere, gizonen eta emazteen arteko diferentzia esanguratsua da. Hori kostaldean nola barnekaldean (hemen Sara barnekaldekoa dela kontsideratuz). Informazio gehiago ekartzen du X. Elosegik baina ondorio berdintsuak erakutsiz.

Igorlearen eta hartzailearen arteko loturaz bi hitz eman behar dugu. Ez da harritzekoa gehienik agertzen den lotura da askazgoa, familia, ahaidetasuna eta bereziki aitamen-semealaben artekoa balin bada. Gutunen erdia egiten du hartzailearen aitak edo amak. 7 esposandere badaude senarrari idazten diotenak. Gero arreba, anaia, alaba, osaba, koinata agertzen dira eta erretora, auzoa, adiskidea. Gutun-hartzailearen ofizioa emana da frankotan: *marinel*, *zurgin*, *maiasturu*, *zapatain*, *kapitain*, *mutil*, *sehi*.

Goazen gutunen edukiaren ikustera. Zein ote da gutun baten idazteko zergatia, oro har? Erranen dugu gutun bat firmatzailearen bakarrizketa dela nahiz ber denboran idazten duenak elkarrizketa bat hazten duen hartzailearekin. Bakarrizketa eta elkarrizketa batzen ditu gutun batek. Igorleak dituen xedeetan ondoko arrazoiak edireiten ohi dira: berriak ematea, zerbait kontatzea, erantzutea; debekatzea edo baimena ematea, abisatzea edo gaztigatzea, agintzea, jakinaraztea (Delmas). Erran gabe doa xede bat baino gehiago izan dezakeela gutun batek helburu berezi bat edo beste azpimarratuz. Doinuaren aldetik, omore tzarra erakusten dute batzuetan eta agindu gogorrak ematen dituzte igorleek hartzaileak izan zukeen portaerarengatik hala nola berririk ez ematea, laguntza ekonomikorik ez igortzea, errespeturik gabeko jokatzea, gaizki ikusitako amodioak «bestaldean» izatea, herrira itzultzeko gogorik ez erakustea. Doinua lasaiago dute gutunek familia zuzenki hunkitzen ez dituzten gertakarien aipatzeko hala nola Erregeren kontrako atentatua, kortsua eta gerla, herrian gertatu istripuak etabar. Aitortu behar da gutunek ez dutela deus ere kontatzen luzaz: edo eta epe laburra zutelako gutun igorleek beren idazkia emateko edo eta halako erreserba bazutelako kanpoko gertakari horietaz mintzatzeko eta are gehiago beren sabeleko mina aipatzeko. Hitzjarioa handia den ala aski murritza ez dugu sakondu. Iduritzen zaigu gutun luzeak bakan agertzen direla, alusioak maiz erabiltzen direla, lakonismoa handia dela. Erdarazko idatzitako gutunak ez ote diren luzeagoak barnatzeko da. Ikertzeko da ere eskribanoaren (letra bere eskuz idazten duena) eta gutuna diktatzen duenaren arteko harremana.

Gutun guziek gutieneko ekonomia badute: hastapenean agurtzeko formula bat etortzen da, garatua edo ez. Ageri da frantsesezko gutunetan ematen den agurtzeko formula badutela eredu. 20. gutuna (gutunen zenbakia ez da Lapurdum 2015 liburuan

agertzen dena: Anpersana wegunean agertuko dena da) hartzen balin badugu, paperaren aurkian idatzia da hartzailearen helbidea, frantsesez idatzia (gutunazalik ez da, gehienetan). Binperrezko partean dator testua, gorago aipatu dugun gutieneko *incipit* batekin, informazio laburra, eta agurtzeko formula laburra gutunaren bukatzeko, firma eman aitzin. Alabaina, Getariako Maria Lamark igorleak semeari idazten dio, haren berririk ez duela kexatzen da, jakinarazten dio *çhampelak* (bakalaua harrapatzeko aparailuak) ordaintzeko bi libera hartu dituela, beste xanpel batzuk igortzen dizkiola. Bitartekariak aipatzen ditu: Borda etxeko Ahex eta Zantzingorriko etxeko jauna. Firmatzen duelarik, alarguntsa dela aipatzen du. Horra testua:

> *Lapresente lettre soite / reandeue a Bernat de Lupoy çhentiqa / a Louisbourg de Louis[bourq] fait aguethary, cé 10 Marz 1757 : «Enne seme maitea gastiaxen dauxut milla gorainxy Estut Erreçibitu çure ganiq aurten Es Letrariq Es çolament gorainxibat jçatu ditut 2tt ahex Bordaganiq chanpeletaqo Eta Egorxen dausquixut çhanpelaq çançingorrieneqo jaunarequin. Gueldixen nais cure ama allargun gaçhoa çure çerbitçary mariade Lamarq.»*

Sarako Martin Borda igorleak Andreco Borda semeari egin gutunean (12.gutuna), incipitaren eredua osoago da. Darabilan estiloa aski ona da, gutun batetik bestera aski fidelki errepikatzen den eredua jarraikitzen duela nabari da.

> *«Ene seme maitea, hartzen dut libertate zuri bi lerroren eskribatzeko eta zuri gure familiako berri onen gaztigatzeko. Osasuna dugu Jainkoari esker, eta desiratzen ginuke denbora berean zuk ere hala bazindu.»*

Gutun batzuen egileak hartzailea erasiatzen du. Bereziki hartzaileak ez duelakoan aspaldi handian bere berririk eman, gutun igorlea egoera ekonomiko latz batean dagoelarik. Horra Hendaiatik Mari Etcheverryk igorria (3. gutuna).

> *«Eskribatzen dizut bi lerro hauk zuri markatzerat emateko estatu miserable batian kausitzen naiz. Errezibitu dut zure letra ere; han ikusi dut zure berrijak, baiñan ez nai bezala. Martinek eta hunzija galdu dute berriz ere, horra zu, desira du arekin zerbait izanen duzu. Marikatania asarre da zure kontra, eztiozula letra bat egin lau hurte huntan. Alaba bat baduzu iduri dubena perfek; etorriko da horrat bakija egiten denian, idurikitzen du. Emendik harat oroitu zaren baiño obeki oroitu zu zarela gizona […] Gana Xume asarre da zure kontra, merisi du zureganik; gusama ere bai».*

Erasiak agertzen dira hartzailea gaizki portatu delakoan. Horra 43. gutunean, Urruñako Haraneder apezak Pierre Etchegoyen ilobari igorria:

> *«Uste nuben aditu denbora guzietan zutaz gizon behar den bezalako bat hizaren ziñela. Bizkitartean kontrarioa aditzen dut; ainitz gare doloratuak zutazko gauzen aditziaz. Ez dut dudatzen konpania gaiztoen efetu batzuek direla horiek; zorigaitzez hizan zarela herri hortan. Bainan zer egin presentian? Erreparatzerat entsaiatu behar da iraganaren, oraino gaztea zare. Hortarakotz, ene haur maitea, moienik hoberena zait alde huntarat pasatzea. Ethortzen bazare borondate on batez betea, entsaiatuko gare gauzen erremediatzerat, eta guk hizaren dugu zure alderako bihotz ezagutu daukuzuna. Ez dezazula, beraz, falta ethortzetik zure anaiarekin».*

Batzuetan hartzailea Louisbourgen ezkontzekotan dagoela jakinik, arranguratuak eta kezkatuak dira aitamak. Berri horrek esondatzen du hartzailea Ameriketan jarriko dela betikotz, etxekoenganik urrun. Mollères andereak idazten die Bitor eta Bernat de Farandiret bi gizon horien arreba batek beren ezkontza prestatu duela herrian erranez (7. gutuna) :

> *«Zuen arrebak egin du hekien ezkontza; zuenak ere egina dago, baldin disposatzen bazarete. Bitor, ene anaia maitia, konpreniarazi izatu daut marinel batek hor habitatzen zarela, bainan guziarekin ere behin ere eztut sinetsi, zergatik ezpaitzaozkat kapable zu guri damu horren egiteko. Beinat, ene bihotz maitia, dio zure arrebak baduela hirur urte zure emaztegaia bilatua duela, bethi dagoela hagorandua zu ikusi nahiz, bethi galdegiten diozkala zure berriak eta bethi agintzen zaituela, baldin fraide egin gogo ezpaduzu. Ezkontza tratazale handi bat da hura, bainan berrerik eztu egiten, hargatik zuek egiteko dauka hura».* Habitatu hitzaren erranahia ez da «bizi izan». Erran nahi du «konkubino batekin bizi» eta hortik dator igorlearen hasarrea.

Pentsatzekoa den bezala, erlijioa agertzen da eta kristau moraletik ez baztertzea gomendatzen diote igorleek hartzaileari. Horra Joanna Castillouk dioena, hartzaile den aita Jainkoaren borondatearen arabera plegatu behar dela gomendatzen baitio :

> *«Ene aita maitia, bihotzez zuri errateko hemengo dolore eta miseria guziek baino gehiago aflijitzen naute zuhor gerla triste hunekin izanak eta zu ikusi nahiak; zure berriak ezin jakinez hiltzerat goaz guziak. Ene aita maitia, egizu bethi kuraie; zeruko Aitak bethi izaren du gure artha; eta zure dolore guziak ofreji diotzotzu Jinkoari ahalik hobekiena. Zure horko doloriek ematen dute ene bihotzian penarik handiena. Ageri da Jinkoak horla plazer dubela; konpli bedi, bada, bethi Jaunaren borondatia.»*

Erlijioa eta ohar mistikoak utzirik, beste gai bat errepikatzen da gutunetan: hartzaileak laguntza ekonomikoa igortzea, are gehiago igorlea nekez bizi delarik ahal handirik gabe. Horra Saratik Joanna de Bidartek Joannes d'Etchetori eskatzen dioena (23.gut.)

> *«Doloratuak gara hagiz izatu dugun berri tristeaz. Harren, gauzak ahalik ungi altxaturik, hunat pasatzerat egizu lehenbiziko komoitatean, zeren nihor gabe kausitzen baikara. Katalin eta bi-biok gara, eta Maria eta Arrangoitzen gelditu dire. Hunat pasatzerat egizu, zeren heldu den neguko ez bazaitzaigu ethortzen utz ahal baitezakegu errota.».*

Gutunaren hastapenean aipatzen den berri tristea zein ote zen argitzeko Xabier Elosegi ibili da Pirinio Atlantiketako arxiboetan, gutunetan aipatu protagonista askoren arrastoa bilduz. Gutun honen kasuan, dokumentu erabakiorra hatzeman du, hain zuzen 1756ko abenduaren 24an Sarako elizan ospatu baitzen zeremonia bat Pierre Etcheto zenaren alde: «fils des meuniers du moulin appellé d'Olha, noyé à Niganich en terre neuve suivant la déclaration de Joannes Etcheto frère du défunt dans sa lettre du 20ème novembre dernier écrite de niganich et adressée à sa mère au moulin d'Olha ». Pierre Etcheto Gaspesiara joan zen 1752an arrantzale gisa. Artxiboetako dokumentuak aipatzen duen Olhako errota da gutunean agertzen den errota bera: Olha errotatik ez ote den bortxaz joan beharko beldur dela dio gutun-igorleak.

Beharrik gertatzen zen igorlearenbaitara laguntza etortzea. Gehienetan kanbio-gutunen bitartez. Testuetan *letra-sanja* deitua da. Catalin Lalannek horrela idatzen dio Saratik Esteben Gourdo senarrari : « *Letra hau eskiribatzen darotzut zuri erraiteko errezebitu nuela zure letra 120 liberako letra sanjarekin, zeintaz pagatua izan bainaiz. Bertze alde, erranarazi tut zuk markatzen zinarozkidan mezak* (6. gutuna) ». Senarra 1708an sortua, han nonbait, Bresten hil sen 1758an Gaspesiatik itzultzean, X. Elosegik erakutsi bezala. Bordariak ziren Lekuberria deitu etxean eta Sarako Etxeberri mediku eta idazle famatua etxearen jabea zen. Beste kasu batzuetan dirua izateko trabak badaude. Horra zer dioten Brave aitamek Senperetik: « *Horko letra sanjarik Baionan ez dute errezibitu nahikatu. Arrotxelarat igorri omen tuzte, ez dakigu han errezibituco othe tuzten* (10. gutuna)". Eta dirua eman behar zukeen arduradunaren fede ona dudan ezartzen dute ere hala nola 11. gutunean. Hendaiatik, Gratianne Diharcek kondatzen dio Joannes Hiraboure senarrari nola egon den Biarritzen hartu gogo zuen diruaren bila eta nola delako Manesca jaunak ez duen onartu bere funtsa ematea:

> *«Izatu dut zuk egorri dautazun letra xanjia, non markatzen baititu berrogoi luis, zeiñetan adrezatuba baita M^r^ Manesca Miarritzkuarenganat. Beraz, izatu naiz jaun haren baitan, nola egorri dautazun, eta errepusta eman darot nola eztuben xanje egortzaille horrenganik deus funtsik errezibitu, untzijak galdu direla, batzubek eta bertziak ez ageri non diren. Ez darot sinatu, ortarik hartuko ditutzu zure prekozijoneak. Ene espos maitea, egiñen duzu hahalik hobekijena, ezen iduritzen zait pagatzeko borondaterik izatu balu sinatuko zubela».*

Beste zentzuan ere eman daitezke laguntza, Louisbourgen biltzen ahal ez diren gauza premiazkoak Lapurditik igorriz: arropak, janariak, edariak, arrantzarako tresnak, haziak… Martin Durrutyk Domingo semeari horrela erraten dio (15. gutunean):

> *«Eta igortzen darozkitzut urdaiazpi bat eta lukhainka zenbeit, eta andoilla bat». Edo 30. gutunean: «Anaia, egortzen dautzute aitak eta amak Picunen semiarekin zerbait aldatzeko: galtza, maripolisa, athorra, marra, galtzerdi eta zapata. Eta ene partez emanen dautzu Martin Filisen semeak kintal erdiko barril bat*

nafar, eta Tulikunek emanen dauzkitzu barril xume bat agorient eta urdaiazpi bat, ene esposaren partez».

Ohartarazten dugu gaur enblematikoak diren Nafarroako ardoa eta Baionako azpia jadanik aipatuak direla igortzen diren opari horietan.

Beste berririk ere ematen da gutunetan, bereziki kortsuarengatik familiako edo auzoko norbaitek bere larrutik ordaintzen duelarik, hala nola preso egotea. 22 gutunean, *Ganis on* gizonaren zortea aipatzen da.

«Ene haur maitea, Ganis ona gan tzunan kortsura, eta angelesek harturik etxatu ziztenen Espanijarat, Lisibona erraten dioten portu batera, zenak gasoa etorri baitzen onez berrehun lekoatan bere lagunekin pilala triste batean. Etzunan hura ikustea baizik bertze mirakulurik, buluzgorrija hurren!»

(Bide nabar, hizkuntza dela eta, alabari idazten duen amak nokako aditz-tratamendu alokutiboa erabiltzen duela ikusten da).

Aldiz kortsuak idekitzen dituen diru egiteko bideak aipatzen dute beste gutun batzuek. Kortsua lanbide ona dela eta mozkin ederra ekartzen duela segurtatzen du Pierre d'Etcheversek (30. gut.) bere anaiari gomendatzen dioelarik herrira itzultzea negozio ona egiteko ontzigintzan:

«Hanitz dire trabailu handiak Frantzian, untzi egiten, partikularki Baionan, eta Donibanen ere bai, ezen Donibanen egin ditut nik neronek korsuzaleak nere planarekin, bat Baionako eta bertzerik hirur edo lau aski untzi galantak, Erregeren konstrikturaren planaren ganean. Eta orai ere baditut hirur xume xantierean hasiak, eta handi bat badut hasi beharra ene kontuko egiteko, zeinak 18 peza muntatuko baikitu».

Ikusten da gutun-igorleak aski ontsa bizi dela gerlari esker eta ez ezin dela familia hura kokatu gizartearen pobreen artean.

Lekuko gertakariak ere aipu dira, aski zalu. Nor sortu den, nor hil den. 6. gutunean auzo bat hil dela agertzen da: "*Ortholopitzko andrea Jinkoak deithu du bereganat hil hunen hirurean, San Blaz egunean, andre gaztea*". Gaur ere, Ortillopitz deitzen den etxe hori ezaguna da Saran museo ttipi bat balitz bezala bisitatzen baita.

X. Elosegik ikerketa sakona egin du bi gutunetan agertu gertakariei buruz (Elosegi, 2019, 92-113). 45. gutunari esker, norbaitek Sabat Dorre deitu Ahetzeko gizona hil duela jakiten dugu:

«Eta zuri hemengo berrien adiarazteko, segur da aditu izan tuzula hemengo berri tristiak. Ehaile gaixoa preso harturik Jondone Laurendi egunian, 1755eko urthean, Parisat eraman dute, Sabat dorreko zena norbaitek hiltzea dela medio, eta bi hilabete badu jendek darazatela bidean heldu dela libro bere etxerat, baiñan oraino ezta ageri gaixoa. Eta Ostaleriako premua, urthe berian Jondoni Jauni inguruan preso harturik, Toulonen da kondenaturik galeretarat sekulakotz, adiskideak ongi melaturik ez urkatzeko. Eta diote denbora batez harekin ibili zen gizon bat, orobat, hura bezala jujamendu beraz kondenatua dela, Amizola ohiaren kolpatzea eta Seroraren leiho hausteko sujeta dela medio».

Ehaile «*gaixoa*» dio gutunaren egileak, ehaile hartaz urriki balitz bezala. X. Elosegik aferaren testintungurua eta harat hunatak deskubritu ditu: falta zaio bakarrik hiltzailearen izena zehaztea. Parada baliatuz, AD 64ko artxiboetan X. Elosegik bildu ditu euskarazko dokumentu interesgarriak, afera honi buruzkoak eta besterik ere, ezagutzen ez zirenak.

Bigarren afera batean (25. gutunean) ez da ehailerik baina bai emazte baten hiru senar bata bestearen ondotik zendu direnak. Catalin Marie Berrogain deitzen den emazte baten alaba hiru ezkontzen bidez eta dotea gero ta pollitagoaren jabetuz igoera soziala nola erdiesten duen erakusten ditu X. Elosegik. Alaba hori, Marie Etxeto, lehenik 1741an ezkondu zen Baionako salerosle zen Pierre Saint-Genesekin. Doteak 12 000 libera ekarri zizkion. Senarra hil zen 1745an 72 urte zituelarik. Alarguntsa berriz ezkondu zen 1747an Pierre Dufau ontzikapitainarekin. Doteak 25 000 libera ekarri zion eta emaztegaiak horrenbeste. Dufau senarra ondoko urtean hil zen, 1748an. 1751an hirugarren aldiz ezkondu zen Marie Detcheto Pierre Laborde d'Arbrun noblearekin. Hau Landesetakoa zen (Saint-Sever). Emazte horren traiektoria ezagutzen dugu Elosegiri esker baina *Le Dauphine*-ko gutunek akulatu gaituzte orduko gizartean murgiltzera. Erran bezala, personaiak ez dira baitezpada ahal ekonomikorik gabekoak: 45. gutun hori idazten duen Marie

Berrogainek Catherine Laborde andereari igortzen dio eta Catherine Laborde hartzailea Jean Laborde Louisbourgko kargudun handiaren arreba da.

Ordu da gutunetan behin baino gehiagotan agertzen den gaiaz hitz bat eman dezagun. Badago gutun horietan guzietan leitmotiv bat patetikoa. Ezen Euskal Herrian egon direnek hanitzetan hauxe diote Ameriketara joan denari: Zato! Zato! Zato ! Erretzen dira «hagorantzen» dira lagunak, ea noiz itzuliko den aita, anaia, arreba, auzoa. Bederen gerla bukatuko delarik etor baledi han dagoena, gaitzerdi! 7. gutunean:

> *«Martxoaren lehenbiziko igandian egin behar tu bortz urte hemendik partitu zinetela. Geroztik ezkara hala satifatu, nola aurten Jainkoak grazia handiak egiten darozkitzue, eta eztarotzue batere gutiago eginen baldin ematen badiozue satifazionea zuen aitari eta amari zuen ikustekoa, ezen hurren dire hagorandu zuek begiz ikusi nahiz: munduko ontasun guziak baino nahiago lukete zuek begiz ikusi, gero hilen badire ere. Hain ungi zuen arrebak zuen ikusteko desira baluke, non uste balu munduko tresorik handienak, guziak utz bailezake zuen ikusteko, non Bordele bezain hurbil balitz ez bailuke batere herabe urratsa zuen ikusteko».*

49. gutunean ere, Graciannek dio:

> *«Amak eta kuñatak milla gorantzi, eta koñatak othoi zatozela etxerat, ethortzerat posible bada niholere, hemen ere badela inobres f...go […], nahi dubenak khortsurat eta nahi dubenak martxantean 60 libera ilabetean, eta khortsurat hilabetentza 150 libera; nahi dutena egiten dute. Zato ahal badagizu etxerat. Zure ama maitea lehenik eta gero gu hurren, zuk aditzerat eman darokigutzun berriak aditu eta, ondoban zu horko miserietarik etorria ikusi nahiz etxerat; zato etxerat. Bi seme izatu tugu; lehenbizkoa hil tzen sortu ta zortzigarren egunean, eta bertzea haur galant bat dugu. Elkarri eginen diogu begitarte. Zato etxerat».*

Nahiz datu zehatzik ez dugun, badakigu gutunigorleek gutiziatzen zuten itzulera ez dela askotan gertatu. Gainera, ez dezagun ahantz gutun horiek hartzailegaiek ez dituztela sekulan irakurri ahal izan. X. Lamikizek ideki zituen gutun horiek beste nehork ere 250 urtez ez zituela ezagutu dakigularik, aitortu behar da halako zimiko bat ematen duela.

Azkenik, *Le D*auphin ontziko dokumentazioak beharleku interesgarri eskaitzen du. Orain artio egin ditugun ikerketek altxor hori ez dute osoki ustiatu. Hizkuntzalaritzaren eta filologiaren aldetik gutunen hizkuntza sakondu behar da usaiako alderdietan: ortografia, lexikoa, morfosintaxia, estiloa, pragmatikoa etabar. Bestalde zehaztu beharko da zein den orduko literatura idatzian erabiltzen den euskara «kultoa»-ren eta hemengo gutunerian agertzen den jende «soilen» euskararen artean dagoen distantzia. Ba ote da orduko aro diglosikoan alfabetizazioa eta eskolatzea neurtzeko modurik? Frantses erresuma kontuan harturik, zergatik bertako hizkuntzan egindako gutuneria erakusten ote du Lapurdi bezalako lurralde murritz batek, halakorik ez baita agertzen Bretainian, Okzitanian, Katalunian —orai ditugun datuen arabera, behintzat—?. Eta zergatik hegoaldeko probintzietan ez da euskarazko gutun asko bildu —dagoenekotz— Londreseko artxiboetan? Beste mail batean erran behar da X. Lamkizen lana segitzeko dela Atlantikoaren garrantziari buruz, komertzioari eta kortsuari buruz X. Elosegik nagusiki ideki duen ildoak behar du barnatua izan, Elosegi beraren eta ikerlari berrien eskutik. Itsasoaren bi alderdietan eta gutunetan aipatuak diren pertsonaien errolda aberastuko da orduko gizartean hobeki ezagutzeko, nolazbait intimitatea apur bat hunkituz.. Bestalde X. Lamikizek, A. Lafuentek eta Ikerreko proikektuaren arduradunok jarraitu behar dugu Londreseko TNAko dokumentazioa aztertzen, bere osotasunean, hots beste hizkuntzetan eta beste eremuetan dagoen altxorra kontuan hartuz. Euskarak asko badauka irabazteko Euskal Herriaz kanpoko ikerketekin lotura hertsian egonez. R. Cock TNAko arduradunak legunki erraten duen bezala, jakitate-arlo horri lotu zaizkion kontinenteko ikerlariak ez dira hain ugari izan. Ordu da gure taldeak erronka hori har dezan helburu eta xede.

Bibliografia

Carette, Camille, 2019 : *Editer des sources multilingues du XVIII siècle en XML-TEI : le projet le Dauphin*, Mémoire pour le diplôme de Master Technologies numériques appliquées à l'Histoire, Ecole Nationale des Chartes, 96 orr.

Chartier, Roger, 2015 : « Entretien avec… Propos recueillis par Évelyne Cohen, Pascale Goetschel », Sociétés et représentations, 40, 289-321.

Cock, Randolph, 2023 : « La capture et le procès du Dauphin », (argitaratzeko) 2023, à paraître

Cock, Randolph, 2023 : « Les prize papers », (argitaratzeko).

Delmas, Bruno, 1997 : « Correspondre : esquisse d'une typologie des formes individuelles et collectives de la communication écrite » in Pierre Albert (arg.), *Correspondre jadis et naguère*, 120. ongresua, CHTS, Aix-en-Provence, 13-30.

Denis, Gwendal, 2023: « *Ar Baum Glas,* texte breton de 1757 », (argitaratzeko).

Elosegi, Xabier, 2019 : *Le Dauphin : 1757 ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak, « othoi çato etchera,* Bilbao, Euskaltzaindia ; Iker bilduma.

Lafuente Annabelle Lafuente, 2021 : De Bayonne à Louisbourg : la correspondance du bateau bayonnais Le Dauphin durant la guerre de Sept Ans (1757), Master, UPPA (zuzend. Ph. Chareyre).

Lamikiz, Xabier, 2010: *Trade ant trust in the eighteenth-century Atlantic world: Spanish merchants and their overseas networks*, Woodbrigde, Boydell Press / Royal History Society.

Lamikiz, Xabier, 2015: «Le Dauphin itsaontziaren testuinguru historikoa: Louisbourgeko euskaldunak, ekonomia atlantiarra eta gerra -1713-1758)», in Lamikiz X. allii, *Lapurdum*, 17-43.

Lamikiz, Xabier, Padilla-Moyano, Manuel ; Videgain, Charles ; 2015 : « Othoi çato etchera : Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757). *Lapurdum*, ale bereziak 2.

Mounole, Céline, 2023: Les lettres du navire Le Dauphin: un séisme pour l'histoire de l'écrit basque (argiratatzekoa).

Oyharçabal, Bernard, 2001 : « Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles », *Lapurdum*, 6, 219-287.

Peytaví Deixona, Joan, 2023 : « Une correspondance personnelle en catalan dans la guerre de Sept Ans : la vie quotidienne de Roussionnais expliquée par-delà l'Atlantique (argitatzekoa) ».

Pontet, Josette, 2006 : Les corsaires dans l'Amirauté de Bayonne au XVIIIème siècle, *Revista de Estudios marítimos del Pais Vasco*, 5, 309-324.

Talec, Jean-Philippe, 2023: « Le jeu de données «Le Dauphin de Louisbourg (LDL)» déposé dans l'entrepôt Anpersana (argitaratzekoa) ».

Viaut, Alain, 2023 : » La présence de l'occitan dans les fonds des prises de guerre au XVIIIème siècle des Archives de la Haute-Cour de l' Amiraute Britannique : une première approche (argitaratzekoa) ».